

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**PRIM 36**

Egilea eta data: Manuel Echave; 1906

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi bi jasodura atzeraeman, bigarrena estalkipe txapituladun gisa. Harlanduzko fatxada banda horizontaletan, erliebea osatuta. Konposizio simetrikoa, atariko baoaren konfigurazioak nabarmenduta, baita erlaitzean frontoi batek errematatzen duen fatxadako modulu zentralak ere. Kolorezko beiratea duten zurezko begiratokiak. Jatorriz proiektu komuna Prim 38rekin. Behe oineko baoen konfigurazioa ez dator bat proiektatukoarekin, eta antza du 38 zenbakiko erdialderako proiektatutakoarekin, metalezko mainela erdialdean zuten bao bikoitzak definitzen baitzuten.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
- * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.